# BAD
BILBAO ANTZERKIA DANTZA

EDICIÓN XXVII. EDIZIOA

16 - 26 / 10 / 2025

BILBOKO ANTZERKI ETA DANTZA GARAIKIDEAREN JAIALDIA
FESTIVAL DE TEATRO Y DANZA CONTEMPORÁNEA DE BILBAO
BILBAO FESTIVAL OF CONTEMPORARY THEATRE AND DANCE



badbilbao.eus

KULTURA JASANGARRIA
CULTURA SOSTENIBLE

ERRONKA GARBIA
INGURUMEN ALDETIK JASANGARRIA DEN EKITALDIA

Bilbao

BAD
BILBAO ANTZERKIA DANTZA

EDICIÓN XXVII. EDIZIOA
16 - 26 / 10 / 2025

## BAD JAIALDIA JASANGARRIAGOA IZAN DADIN
## POR UN FESTIVAL BAD MÁS SOSTENIBLE

**Erabili garraio jasangarria**
Utiliza transporte sostenible

**Saihestu plastikoa**
Evita el plástico

**Birziklatu**
Recicla

**Aurreztu ura**
Ahorra agua

**Kontsumitu 0 kilometroko produktuak**
Consume productos km 0

BABESLEAK / PATROCINA

LAGUNTZAILEAK / COLABORA

KULTURA JASANGARRIA
CULTURA SOSTENIBLE

ERRONKA GARBIA

badbilbao.eus

4 PROGRAMAZIOA/PROGRAMACIÓN
6 SARREREN SALMENTA ETA PREZIOAK / PRECIOS Y VENTA DE ENTRADAS
8 LEKUAK/SEDES
10 ZINEGOTZIAREN AGURRA/SALUDO DEL CONCEJAL
12 JARDUNALDIA “TRANTSIZIO PROFESIONALA DANTZAN” / JORNADA LA TRANSICIÓN PROFESIONAL EN LA DANZA
14 FORMOL LABORATEGIA HERIOTZAK EDUARDO DU IZENA
16 NAZARIO DÍAZ AMANECER ALTO CIELO
18 EMILIO MANZANO VOLVERSE PEQUEÑO
20 BERRITZA ELKARTEA MAXKA`ROA
22 CIELO RASO NÉE
24 PERPETÛA VASTARDA FREE TOUR-BILBAO
26 IXA NIK-EU 2.0
28 LAURA PENAGOS PUTAREN BAKARRIZKETA EROETXEAN
30 MONTDEDUTOR-GUILLEM MONT DE PALOL & JORGE DUTOR DANZA ROMÁNTICA
32 BRICE NOESER-LORGANISME DIRECTION ASSISTÉE
34 IBON SALVADOR BOCA NOCHE/GAUA AHOA
36 CARLA RÓISIN & BASELINE MI REINO POR UN CABALLO
38 ANA COTORÉ NO NECESITO UN NOMBRE PARA SER MASCOTA
40 CÍA. SONIA GÓMEZ CALIDOSCÓPICA LAB GORPUTZA ETA OSASUN MENTALA
CÍA. SONIA GÓMEZ CALIDOSCÓPICA LAB CUERPO Y SALUD MENTAL
42 PABLO FIDALGO EL AÑO QUE MURIÓ FRANCO BATTIATO
44 HIKA ANTZERKI TALDEA MI DEUDA
46 CIA. SONIA GÓMEZ CALIDOSCÒPICA
48 JULIÁN PACOMIO TODA LA LUZ DEL MEDIODÍA

| EGUNA DÍA | LEKUA SEDE | ORDUA HORA | LANA OBRA | DIZIPLINA DISCIPLINA | IRAUPENA DURACIÓN | IRISGARRITASUNA ACCESIBILIDAD |
|---|---|---|---|---|---|---|
| OSTEGUNA 16/10 JUEVES | HARROBIA | 19:00 | **FORMOL LABORATEGIA** "HERIOTZAK EDUARDO DU IZENA" EUSKARAZ | Poesia ez-irakurtaldia | 60´ **Gazte eta helduentzat** Público joven y adulto | |
| OSTIRALA 17/10 VIERNES | HARROBIA | 19:00 | **NAZARIO DÍAZ** "AMANECER ALTO CIELO" | Danza-Artes vivas | 55´ **Gazte eta helduentzat** Público joven y adulto | |
| | LA FUNDICIÓN | 21:00 | **EMILIO MANZANO** "VOLVERSE PEQUEÑO" | Artes escénicas | 65´ **Gazte eta helduentzat** Público joven y adulto | |
| LARUNBATA 18/10 SÁBADO | HARROBIA | 19:00 | **BERRITZA ELKARTEA** "MAXKA`ROA" EUSKARAZ | Dantza-Antzerkia-kantua | 60´ **Adin guztietarako** Todos los públicos | |
| | LA FUNDICIÓN | 21:00 | **CIELO RASO** "NÉE" | Danza | 55´ **Gazte eta helduentzat** Público joven y adulto | |
| IGANDEA 19/10 DOMINGO | BILBOROCK | PLAZA ARRIAGA Inicio Recorrido 11:30 BILBOROCK Fin recorrido (coloquio) | **PERPETÛA VASTARDA** "FREE TOUR-BILBAO" **Muestra de proceso de creación** "ARTISTAS EN RESIDENCIA" | Teatro relacional | 105´ **Helduentzat** Público adulto | |
| | HARROBIA | 19:00 | **IXA** "NIK-EU 2.0" (Estreno en Euskadi) | Danza | 55´ **Gazte eta helduentzat** Público joven y adulto | |
| | LA FUNDICIÓN | 19:00 | **LAURA PENAGOS** "PUTAREN BAKARRIZKETA EROETXEAN" EUSKARAZ | Antzerkia | 40´ **Gazte eta helduentzat** Público joven y adulto | |
| ASTELEHENA 20/10 LUNES | HARROBIA | 20:00 | **MONTDEDUTOR-GUILLEM MONT DE PALOL-JORGE DUTOR** "DANZA ROMÁNTICA" (Estreno en Euskadi) | Danza-Performance | 75´ **Gazte eta helduentzat** Público joven y adulto | |



| EGUNA DÍA | LEKUA SEDE | ORDUA HORA | LANA OBRA | DIZIPLINA DISCIPLINA | IRAUPENA DURACIÓN | IRISGARRITASUNA ACCESIBILIDAD |
|---|---|---|---|---|---|---|
| ASTEARTEA 21/10 MARTES | HARROBIA | 20:00 | **BRICE NOESER** "DIRECTION ASSISTÉE" (Estreno Estado) | Danza-Performance | 70´ **Gazte eta helduentzat** Público joven y adulto | |
| ASTEAZKENA 22/10 MIÉRCOLES | CÚPULA CAMPOS | 19:00 | **IBON SALVADOR** "BOCA NOCHE/ GAUA AHOA" (Estreno absoluto) | Danza-Performance | 60´ **Gazte eta helduentzat** Público joven y adulto | |
| OSTEGUNA 23/10 JUEVES | BILBOROCK | 19:30 | **CARLA RÓISIN & BASELINE** "MI REINO POR UN CABALLO" | Danza-Performance-Música experimental | 35´ **Gazte eta helduentzat** Público joven y adulto | |
| | CÚPULA CAMPOS | 21:00 | **ANA COTORÉ** "NO NECESITO UN NOMBRE PARA SER MASCOTA" (Estreno absoluto) | Danza-Teatro | 60´ **Gazte eta helduentzat** Público joven y adulto | |
| OSTIRALA 24/10 VIERNES | CENTRO MUNICIPAL SAN FRANCISCO | 09:00-13:30 16:30-18:30 | **ADDE** "LA TRANSICON PROFESIONAL EN LA DANZA" | Jornada profesional | | |
| | LA FUNDICIÓN | 21:30 | **PABLO FIDALGO** "EL AÑO QUE MURIÓ FRANCO BATTIATO" (Estreno absoluto) | Conferencia performativa | 50´ **Gazte eta helduentzat** Público joven y adulto | |
| LARUNBATA 25/10 SÁBADO | HARROBIA | 19:00 | **HIKA TEATROA** "MI DEUDA" | Teatro | 80´ **Helduentzat** Público adulto | |
| | CÚPULA CAMPOS | 21:00 | **CÍA. SONIA GÓMEZ** "CALIDOSCÓPICA" (Estreno en Euskadi) | Danza-Performance | 70´ **Adin guztietarako** Todos los públicos | |
| IGANDEA 26/10 DOMINGO | HARROBIA | 19:00 | **JULIÁN PACOMIO** "TODA LA LUZ DEL MEDIODÍA" (Estreno en Euskadi) | Artes vivas-Teatro-Danza | 60´ **Gazte eta helduentzat** Público joven y adulto | |

## IKUSKIZUNEN IRISGARRITASUNAREN INGURUKO PIKTOGRAMAK
## PICTOGRAMAS SOBRE LA ACCESIBILIDAD DE LOS ESPECTÁCULOS

**Pertsona gorrak edo entzumen-arazoak dituztenentzako ikuskizun egokiak**
Espectáculos aptos para personas sordas o con problemas auditivos

**Mugikortasun urriko pertsonentzako leku-erreserbak izango dituzten ikuskizunak**
Espectáculos con reserva de espacios para personas con movilidad reducida

**Beharrizan bereziak dituzten pertsonentzat gordetako eserleku eta espazioak**
Reserva de asientos y espacios para personas con necesidades especiales

# 2025EKO BAD JAIALDIKO SARREREN SALMENTA ETA PREZIOAK
# PRECIOS Y ENTRADAS BAD 2025

BAD Jaialdiko sarrerak badbilbao.eus webgunean edo aretoen web orrietan eta takiletan eskuratu ahal izango dira aurretik: La Fundición-en eta Campos Elíseos Antzokian.

**Urriaren 16ra arte erositako sarreren prezioa 8 €-koa izango da, eta ordutik aurrera, 10€-koa.**

Ohar garrantzitsua: behin ikuskizuna hasita, ezin izango da aretora sartu.

Las entradas del Festival BAD podrán adquirirse anticipadamente a través de la web badbilbao.eus, o las páginas web y taquillas de La Fundición y Teatro Campos Elíseos.

**El precio de las entradas adquiridas hasta el 16 de octubre será de 8 €, y a partir de esta fecha su precio será de 10 €.**

Aviso importante: una vez dé comienzo el espectáculo no se podrá acceder a la sala.

## HARROBIA ESKENA ARETOKO IKUSKIZUNETARAKO SARRERAK
## ENTRADAS PARA ESPECTÁCULOS EN HARROBIA ESKENA

- Prezioa urriaren 16ra arte: **8€ badbilbao.eus web orrian.**
- Prezioa urriaren 16tik aurrera: **10€ badbilbao.eus web orrian.**

Honez gain, ikuskizunaren egun berean, hasi baino 30 minutu lehenagotik, takilan eskuratu ahalko dira sarrerak 10 eurotan.

- Precio hasta el 16 de octubre: **8€ en la web badbilbao.eus**
- Precio a partir del 16 de octubre **10€ en la web badbilbao.eus**

Además, el mismo día del espectáculo, podrán adquirirse entradas, al precio de 10 €, en taquilla desde media hora antes del comienzo del espectáculo.



## LA FUNDICIÓN ARETOKO IKUSKIZUNETARAKO SARRERAK / ENTRADAS PARA ESPECTÁCULOS EN LA FUNDICIÓN

Prezioa urriaren 16ra arte: **8€ La Fundición aretoaren web orrian, takilan edo telefonoaren bidez.**

Prezioa urriaren 16tik aurrera: **10€ La Fundición aretoaren web orrian, takilan edo telefonoaren bidez.**

Web orria: **lafundicion.org**

Telefonoa: **94 475 33 27**

Precio hasta el 16 de octubre:
**8€ en la web, taquilla o reserva telefónica.**

Precio a partir del 16 de octubre
**10€ en la web, taquilla o reserva telefónica.**

Web: **lafundicion.org** // Teléfono: **94 475 33 27**

## CAMPOS ELÍSEOS ANTZOKIKO IKUSKIZUNETARAKO SARRERAK / ENTRADAS PARA ESPECTÁCULOS EN EL TEATRO CAMPOS ELÍSEOS

Prezioa urriaren 16ra arte: **8€ Campos Elíseos Antzokiaren web orrian edo takilan.**

Prezioa urriaren 16tik aurrera: **10€ Campos Elíseos Antzokiaren web orrian edo takilan.**

Web orria: **teatrocampos.com**

Precio hasta el 16 de octubre: **8€ en la web o taquilla del Teatro Campos Elíseos.**

Precio a partir del 16 de octubre **10€ en la web o taquilla del Teatro Campos Elíseos.**

Web: **teatrocampos.com**

## DOAKO JARDUERAK / ACTIVIDADES GRATUITAS

**PERPETÛA VASTARDA** "Free Tour-Bilbao"
Izen ematea: www.badbilbao.eus
Garrantzitsua: mugikorra kargatuta eta aurikularrak. Oinetako erosoak, ura, eguzkitako krema edo euritakoa gomendatzen dira.

Inscripciones: www.badbilbao.eus
Importante: móvil cargado y auriculares. Se recomienda el uso de calzado cómodo, agua y crema solar o paraguas, igandea 19 domingo.

JORNADA PROFESIONAL "La transición profesional en la danza" Centro Municipal San Francisco, ostirala 24 viernes.
Izen ematea/Inscripciones:info@addedantza.og






# LEKUAK



# SEDES

1_ Teatro Campos Antzokia
Bertendona, 3 Bis
www.teatrocampos.com/informacion-util/contacto/

2_ Harrobia
Langaran, 3 (Otxarkoaga). Metro L3
https://www.harrobia.org/informacion-general/

3_ La Fundición
Francesc Macià, 1-3
https://www.lafundicion.org/

4_ Bilborock
Mesedeetako kalea, 1

5_ Centro Municipal San Frantzisko Udaltegia
Mariaren Bihotza Plaza z/g

6_ LA BOLSA-PALACIO YHON
Pilota kalea, 10

# HITZORDUAREKIN LEIAL IZANIK, BILBON DIRA BERRIRO ERE PROPOSAMEN ABANGOARDISTENAK

Beste urte batez, ongietorria egingo diogu BAD Antzerki eta Dantza Garaikidearen Jaialdiari, proposamen abangoardistenak ekarri nahi baitizkigu antzerki, dantza eta dramaturgia berrien diziplinetan.

Hiriko kultur programazioaren barruan finkatuta dagoen Jaialdia da BAD, eta aurten XXVII. edizioa beteko du. Finkatua eta, aldi berean, publikoak espero duena, udazkenetik udazkenera azken joera artistikoak ezagutu eta horiekin gozatu nahi baitu.

Urriaren 16tik 26ra arte eszenikoekin hitzordua izango dugu. Guztira 17 ikuskizun ikus ahal izango dira hirian zehar banatutako hainbat espazioetan: La Fundición, Harrobia, Bilborock, Campos Antzokiko Kupula Aretoa eta San Frantziskoko Udaltegia. Azken horrek berrikuntza ekarriko du 2025eko Jaialdira, Euskal Herriko Dantzako Profesionalen Elkarteak (ADDE) eskainiko dituen jardunaldi profesionalak bertan izango baitira.

BADen aurtengo bost egoitzek Bilboko Udalak bultzatzen duen helburuetako bat azpimarratzen jarraitzen dute; alegia, kultur ekitaldietarako sarbidea erraztea, barruti ezberdinetan kokatuta eta, aldi berean, herritarrengana proposamen eszeniko ezberdinak hurbiltzea, merkataritza-zirkuituetan oso ohikoak ez direnak. Arte eszeniko hauen barietatea ez ezik, kalitatea ere nabarmendu behar da, egun hauetan hiria proiektu berritzaile eta askotarikoen erdigune bihurtzen baitute, gero eta inklusiboagoak, jorratzen duten gaietan nahiz era guztietako publikoak hartzeko moduan.

Hain zuzen ere, aurtengo kartelean, Antzerki eta Dantza Garaikidearen Jaialdiaren espiritua islatzen da; hau da, sortzeko askatasuna eta diziplina artistikoen fusioa. Irudi ausarta eta abangoardista da, esanahi eta konnotazio ugari ditu, eta ustekabeari eta ezohikoari atea irekitzen dio.

XXVII. edizio honetan parte hartzen duten 17 konpainiak harrituko gaituzte beren proposamenekin. 3 nazioartekoak dira, 6 Estatukoak eta 8 Euskal Herrikoak, tokiko talentua babestearen aldeko apustu argia eginez. Horiek guztiek gure mugen barruko eta kanpoko sentsibilitate artistikoak lantzeko moduak ezagutzeko aukera emango digute.

Jardunaldi hauetan, 3 estreinaldi absolutuz, estatu-mailako estreinaldi batez eta Euskadiko 4 estreinaldiz gozatu ahal izango dugu. Gainerako proposamenekin batera, dantzaren, antzerkiaren, performanceen, musikaren eta abarren abangoardia esperimentatzeko aukera eskainiko digute. Kaleidoskopio horrek, beste behin ere, arteak bizirik daudela, eboluzionatzen ari direla eta beren forma ugariekin harritu nahi gaituztela erakutsiko digu.

Orain gure txanda da ikusle gisa, eta beti abangoardian dagoen BAD baten edizio berri interesgarri honi liluratzen utzi behar diogu.



# FIELES A SU CITA VUELVEN A BILBAO LAS PROPUESTAS MÁS VANGUARDISTAS

Un año más damos la bienvenida al Festival de Teatro y Danza Contemporánea BAD, que pretende traernos las propuestas más vanguardistas de las disciplinas de teatro, danza y nuevas dramaturgias.

BAD es un Festival consolidado dentro de la programación cultural de la Villa, que este año cumple su XXVII edición. Consolidado y al mismo tiempo esperado por un público que, otoño tras otoño, quiere conocer y disfrutar las últimas tendencias artísticas.

Del 16 al 26 de octubre nos espera una cita con las artes escénicas. Un total de 17 espectáculos que se podrán ver en diferentes espacios repartidos por la ciudad: La Fundición, Harrobia, Bilborock, la Sala Kupula Aretoa del Teatro Campos y el Centro Municipal de San Francisco. Este último aporta la novedad a este Festival 2025, al albergar las jornadas profesionales que ofrecerá la Asociación de Profesionales de la Danza del País Vasco (ADDE).

Las cinco sedes de este año de BAD siguen remarcando uno de los objetivos que impulsa el Ayuntamiento de Bilbao, como es facilitar el acceso a eventos culturales ubicándolos en los diferentes distritos y, al mismo tiempo, acercar a la ciudadanía distintas propuestas escénicas poco habituales en los circuitos comerciales. Variedad y también calidad, no nos olvidemos, de unas artes escénicas que convierten a la Villa estos días en el centro de los proyectos más innovadores y diversos, cada vez más inclusivos, tanto en las temáticas que se abordan como en la manera de acoger a públicos de todo tipo.

Precisamente, en el cartel de este año se condensa el espíritu del Festival de Teatro y Danza Contemporánea como es la libertad creativa y la fusión de disciplinas artísticas. Una imagen audaz y vanguardista, que implica multitud de significados y connotaciones, y que abre la puerta a lo inesperado y lo inusual.

Los y las responsables de sorprendernos con sus propuestas serán las 17 compañías que participan en esta XXVII edición. 3 son internacionales, 6 llegan desde el Estado y 8 son vascas, en una clara apuesta por respaldar el talento local. Todas ellas nos brindarán la oportunidad de conocer diferentes formas de abordar sensibilidades artísticas de dentro y fuera de nuestras fronteras.

Tenemos por delante unas jornadas en las que disfrutar de 3 estrenos absolutos, un estreno a nivel estatal y 4 estrenos en Euskadi que, junto al resto de las propuestas, nos brindan la oportunidad de experimentar la vanguardia de la danza, el teatro, performances, la música … Un caleidoscopio que nos demuestra, una vez más, que las artes están vivas, que evolucionan y que pretenden sorprendernos con sus múltiples formas.

Ahora es el turno de nosotros y nosotras, como espectadores y espectadoras, quienes nos dejemos seducir por esta interesante nueva edición de un BAD siempre a la vanguardia.

Gonzalo Olabarria Villota

Kultura eta Gobernantza zinegotzia
Concejal de Cultura y Gobernanza



OSTIRALA 24
SAN FRANTZISKOKO UDALTEGIA

JARDUNALDIA

# TRANTSIZIO PROFESIONALA DANTZAN

**Goizeko programa**

9:00-9:15 Izena eman duten pertsonen harrera

9:15-9:30 ADDEren aurkezpena

9:30-10:30 **1. Mahaia - Zer da trantsizio profesionala?**
Zer uletzen da trantsizio profesioanalez? Zeri egiten diote aurre trantsizioan dauden dantza-artistek? Trantsizioaren zikloa eta aldaketa onartzea. Mugak. Erronka emozionalak. Beharrak eta gaitasunak. Trantsizioan akonpanamenduaren beharra.

10:45-11:45 **2. Mahaia- Trantsiziorako laguntza**
Zer da trantsizio profesionaleko programa bat?

Nazioarteko ereduak. 50 urteko esperientzia. IOTPD Espainiako Trantsizio Profesionalerako Programa Lege eta finantzaketa esparrua

12:00-13:00 **3. Mahaia- Trantsizioari Laguntzeko Zerbitzua**
Zertan datza Trantsizio Profesionalaren Garapenerako Laguntza eta babesa Zerbitzua?

TRANSIT Trantsizioan Laguntzeko Zerbitzua

13:00-13:30 Galderen txanda eta amaiera

**Arratsaldeko programa**

16:30-18:30 **Lan-saioa.** TRANSIT Elkartea gaur egun lantzen ari den trantsizio profesionaleko programa.

**Mahaietan aurrez aurre eta online esku hartzen duten pertsonak:**

Transit erakundeko kide diren aditu profesionalak

IOTPDko kide den Trantsizio Profesionaleko Programaren arduradun diren nazioarteko adituak.

Tratsizioan dauden dantzako profesionalak.

Izen-ematea: Doako jarduera, aldez aurretik izena emanda
Izena emateko epea: urriaren 1etik 21era info@addedantza.org helbidean
Antolatzailea: ADDE Euskal Herriko Dantza Profesionalen Elkartea
Dinamizatu eta gidatu: TRANSIT Dantzako Trantsizio Profesionalerako Azterlan eta Ekimenen Mahaia, gaiari buruzko Espainiako elkarte aitzindaria eta IOTPDko kidea (Dantzari Profesionalen Trantsiziorako Nazioarteko Erakundea)
Laguntzailea: BAD Jaialdia
Babeslea: Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saila



VIERNES 24
CENTRO MUNICIPAL SAN FRANCISCO

JORNADA

# LA TRANSICIÓN PROFESIONAL EN LA DANZA

**Programa de mañana**

9:00-9:15 Recepción personas inscritas

9:15-9:30 Presentación por parte de ADDE

9:30-10:30 **Mesa 1 - ¿Qué es la transición profesional?**
¿Qué se entiende por transición profesional? ¿A qué se enfrentan los/las artistas de la danza en transición? El ciclo de la transición y la asunción del cambio. Límites. Retos emocionales. Necesidades y Capacidades. La necesidad de acompañamiento en la transición.

10:45-11:45 **Mesa 2- Acompañamiento a la transición**
¿Qué es un programa de transición profesional?

Modelos internacionales. 50 años de experiencia. IOTPD (Programa de Transición Profesional en España. Marco legal y de financiación)

12:00-13:00 **Mesa 3- Servicio de Acompañamiento y Apoyo a la Transición**
¿En qué consiste el Servicio de Acompañamiento y Apoyo a la Transición Profesional?

Servicio de Acompañamiento a la Transición TRANSIT

13:00-13:30 Rueda de preguntas y cierre

**Programa de tarde**

16:30-18:30 **Sesión de trabajo.** Programa de transición profesional en el que se está trabajando actualmente desde la asociación Transit.

**Personas que intervienen en las mesas de manera presencial y online:**

Expertos profesionales miembros de Transit.

Expertos internacionales responsables del Programa de Transición Profesional miembro IOTPD

Profesionales de la danza en transición.

Inscripciones: Actividad gratuita con inscripción previa
Plazo de inscripción: 1 al 21 de octubre en info@addedantza.org
Organiza: ADDE Asociación de Profesionales de la Danza del País Vasco
Dinamiza e imparte: TRANSIT Mesa de Estudios e Iniciativas para la Transición Profesional en la Danza, asociación pionera en España sobre el tema y miembro de IOTPD (Organización Internacional para la Transición de Bailarinas y Bailarines Profesionales)
Colabora: Festival BAD
Subvenciona: Departamento de Cultura y Política Lingüística de Gobierno Vasco

OSTEGUNA 16
JUEVES
19:00
HARROBIA

60 min
Poesia ez-irakurtaldia
No-recital de poesía
Gazte eta helduentzat
Público joven y adulto
Euskadi
Euskaraz



# FORMOL LABORATEGIA

## HERIOTZAK EDUARDO DU IZENA

Zuzendaritza/ Dirección:
Formol Laborategia, Oier Guillan, Javier Barandiaran

Dramaturgia/ Dramaturgia:
Formol Laborategia, "Biziei ere omen" MPK

Antzezleak/ Intérpretes:
Intza Alkain, Mikel Ibarguren, Edurne Azkarate

Off Ahotsak/ Voces en off:
Bea Egizabal, Intza Alkain, Mikel Ibarguren

Diseinu grafikoa/ Diseño gráfico:
Janire Arroyo

Argazkiak/ Fotografía:
Iker Gozategi

Ekoizpena eta banaketa
Producción y distribución:
Formol Laborategia, Susa Argitaletxea



## LABURPENA

Formol Laborategiak eta Susa Argitaletxeak Heriotzak Eduardo du izena poesia ez-errezitaldia aurkezten dute. "Mundu Poesia Kaierak" poesia liburu bildumak 10 urte betetzen dituen honetan, Susako lagunek bizirik dauden poetak hil nahi zituztela esan zieten Formoldarrei. Haiek metaforikoki esan omen zuten, baina Formolekoek lana serio hartu dute.

*Mezu bat heldu da kontrolera.*

*Poema bat dela uste dugu.*

*Kanpoan itsaso zuria eta Eduardo*

*Besteri ez dira geratzen.*

*Suntsipen orokorra.*

*Barruko iluntasunean*

*Egin dezakegun gauza bakarra*

*Izarrak izatera jolastea da.*

*Argi txikiak gara, pauso ahalketiz.*

*Agurrak, poesia eta musikita.*

"Munduko Poesia Kaierak" bildumaren 10. Urteurrena ospatzeko Formol Laborategiaren poesia ez-errezitaldia. Biziei ere omen.

## SINOPSIS

Formol Laborategia y Susa Argitaletxea presentan Heriotzak Eduardo du izena, un no-recital de poesia. En el décimo aniversario de la colección de poesía "Mundu Poesia Kaierak", los amigos de Susa dijeron a los miembros de Formol que querían "matar" a los poetas vivos. Aunque lo dijeron metafóricamente, en Formol se tomaron la propuesta en serio.

Ha llegado un mensaje al control.

*Creemos que es un poema.*

*Fuera no quedan más que*

*el mar blanco y Eduardo.*

*Destrucción general.*

*En la oscuridad del interior*

*Lo único que podemos hacer*

*Es jugar a ser estrellas.*

*Somos pequeñas luces, con tímidos pasos.*

*Saludos, poesía y musiquita.*

Un no-recital de poesía de Formol Laborategia para celebrar el décimo aniversario de la colección de poesía "Mundu Poesia Kaierak". Homenaje también a los vivos.



## KONPAINIA

Formol Laborategia 2019an eratu zen Intza Alkain, Edurne Azkarate eta Mikel Ibargurenen eskutik euskal eszena garaikidean parte hartzeko asmoz. Hasieratik euskal kulturgintzarekiko zuten erantzunkizunari heltzea, sortzaileen arteko saretzea sustatzea, publiko berria sortzea eta poetika eta estetika berrien bila ikerketa eszenikoan aritzea izan dira taldearen helburuak. Laborategi moduan lan eginez, sorkuntza kolektiboa dute oinarri. Antzerki posdramatikoaren esparruan dihardute, kode performatiboak landuz, zuzeneko gertakariaren ideia esploratuz eta narratiba klasikoetatik haratago ibiliaz, besteak beste. Eszenaratze berri baten bilaketan, iruditegi oniriko, teknologiko eta kisch-ak uztartzen dituzte, pop kultura eta punkaren eraginpean. Ikus-entzunezkoen eta dramaturgia ez-narratiboen erabilpena gailentzen da beren sorkuntzetan.

## COMPAÑÍA

Formol Laborategia se crea en 2019 de la mano de Intza Alkain, Edurne Azkarate y Mikel Ibarguren, con el objetivo de participar de la escena contemporánea vasca. Las metas del grupo han sido, desde sus comienzos, abordar su responsabilidad hacia la cultura vasca, fomentar las redes de creadores y creadoras, crear un público nuevo, y buscar nuevas poéticas y estéticas a través de la investigación escénica. Se basan en la creación colectiva, trabajando a modo de laboratorio. Se mueven en el ámbito del teatro posdramático, cultivando códigos performativos, explorando la idea del evento en vivo y superando las narrativas clásicas, entre otras cuestiones. En la búsqueda de una nueva puesta en escena combinan imaginarios oníricos, tecnológicos y kitsch bajo la influencia de la cultura pop y el punk. En sus creaciones predomina el uso de audiovisuales y dramaturgias no narrativas.

OSTIRALA 17
VIERNES
19:00
HARRROBIA



# NAZARIO DÍAZ

## AMANECER ALTO CIELO

55 min

Dantza-Arte biziak
Danza-Artes vivas

Gazte eta helduentzat
Público joven y adulto

Euskadi-Andalucía

Kontzeptua eta koreografia
Concepto y coreografía: Nazario Díaz

Sorkuntza kolektibo eta performancea
Co-creación y performance:
Amparo Badiola, Julián Pacomio, Ibon Salvador

Dramaturgiarako asistentzia
Acompañamiento dramatúrgico: Carolina Campos

Koreografiarako asistentzia
Asistencia coreográfica: Isaac Erdoiza

Argien diseinua / Diseño de iluminación:
Leticia Skrycky, Victor Colmenero Mir

Soinuaren diseinua / Diseño de sonido: Ce Pams

Ekoizpena / Producción:
Silvia Coppola, Kurzuth Silverstone

Ko-produkzioa / Coproducción: Azkuna Zentroa

Egoitzak eta laguntzak / Residencias y apoyos: PACAPS (Lisboa), El Consulado Fonteta (Valencia), Tenerife Lav, Dantzagunea-Sortutakoak, Harrobia-Eszenabide, Azkuna Zentroa, Lekuona Fabrika (Errenteria), Gobierno Vasco (Creación Coreográfica)



### LABURPENA

Nolakoa litzateke desitxuratzen duen begirada bat? Eta bere burua ezabatzen duen testu bat? Nora darama hitza haztatzeak edo, begiak itxita, jiratuta edo keinuka, hura gorpuzteak?

*amanecer alto cielo* lanean, begiradarik gabeko hiru gorputzek hitzak adierazten dituzte triangelu moduko batean, eta triangelu horren erpinak elkarrengana hurbiltzen eta urruntzen dira erlazio ekilateroak, isoszeleak edo eskalenoak ezarriz, eta izendatzen denaren eta desegiten hasia denaren arteko distantzia haztagarri eta subjektiboak antolatuz.

*amanecer alto cielo* lanak hizkuntzaren hutsaltzea planteatzen du eta ikusmenaren zenbait ezaugarri aztertzen ditu, bai eta horiek zelan aldatzen dituzten gorputzak eta haien gaineko pertzepzioa ere, Lisa Nelson koreografo eta bideoartistaren proposamenei begiratzeko praktika batzuetan oinarrituta.

Begiratzen duten eskuen, ukitzen duten begien eta ezabatzen diren gorputzen dantza.

### SINOPSIS

¿Cómo sería una mirada que desdibuja? ¿Y un texto que se borra a sí mismo? ¿A dónde lleva palpar la palabra o encuerparla con los ojos cerrados, dados de vuelta o parpadeantes?

En *amanecer alto cielo* tres cuerpos sin mirada enuncian palabras en una suerte de triángulo cuyos vértices se acercan y alejan entre sí, estableciendo relaciones equiláteras, isósceles o escalenas entre ellos, organizando las distancias palpables y subjetivas entre lo que se nombra y lo que ya empieza a deshacerse.

*amanecer alto cielo* plantea el desvanecimiento del lenguaje y aborda diferentes cualidades de la visión y cómo estas modifican los cuerpos y la percepción sobre ellos, inspiradas en algunas prácticas sobre el mirar propuestas por la coreógrafa y videoartista Lisa Nelson. .

Una danza de manos que miran, de ojos que tocan y de cuerpos que se borran.



### KONPAINIA

Nazario Díazek arte performatiboen eremuan egiten du lan batez ere, gorputzaren, begiradaren eta idazketaren artean sortzen den tentsioan zentratuta. Azken urteetan, eta Andaluziako Vértebro kolektiboarekin daukan jarduerarekin batera, ikaskuntza kolektiboko hainbat testuingurutan hartzen du parte, eta dantzaren eta arte bizien esparruko metodologiak eta tresnak trukatzen ditu.

Hainbat lekutan babestu dute bere lana: Terrassako Joera Berrien Jaialdia, Reims Scenes d ´Europe, Mexikoko Arte Bizien Nazioarteko Topaketa, Madrilgo Matadero, Salmon Jaialdia, Mercat de les Flors, Azkuna Zentroa, Reina Sofia Museoa, Tenerifeko Arteen Espazioa, Espainiako Akademia Erroman, Arte Garaikidearen Galiziako Zentroa, Párraga Zentroa, Foco Galeria (Lisboa), Andaluziako Sorkuntza Garaikideko Zentroa edo MACBA (Bartzelona).

Gaur egun, Bilbo eta Lisboa artean bizi da, zenbait truke-proiektutan. Esperientzia horien ondorioz sortu ziren bere azken piezak: Fuego Verde (BAD Bilbao, 2021) eta Amanecer alto cielo (Azkuna Zentroa, 2024).

### COMPAÑÍA

Nazario Díaz desarrolla su trabajo principalmente en el ámbito de las artes performativas, centrándose en la tensión que se genera entre el cuerpo, la mirada y la escritura. En los últimos años y en paralelo a su actividad con el colectivo andaluz Vértebro, participa en varios contextos de aprendizaje colectivo intercambiando metodologías y herramientas del campo de la danza y las artes vivas.

Su trabajo ha sido apoyado por contextos como Festivas de Nuevas Tendencias de Terrassa, Reims Scenes d´Europe, Encuentro Internacional de Artes Vivas en México, Matadero en Madrid, Festival Salmon, Mercat de les Flors, Azkuna Zentroa, Museo de Arte Reina Sofía, Tenerife Espacio de las Artes, Academia de España en Roma, Centro Galego de Arte Contemporáneo, Centro Párraga, Galeria Foco (Lisboa), Centro de Creación Contemporánea de Andalucía o MACBA (Barcelona).

Actualmente reside entre Bilbao y Lisboa en distintos proyectos de intercambio. A raíz de estas experiencias nacen sus últimas piezas Fuego Verde (BAD Bilbao 2021) y Amanecer alto cielo (Azkuna Zentroa 2024)



OSTIRALA 17
VIERNES
21:00
LA FUNDICIÓN

Sortzaile eta antzezlea
Creador e intérprete: Emilio Manzano

Soinu espazioa / Espacio sonoro:
Juan Escribano

Argien diseinua
Diseño de iluminación:
Emilio Manzano

Jantziak / Vestuario:
Cristina Fructuoso (La Bixa)

Diseinu grafikoa eta bisualak
Diseño gráfico y visuales:
Abel Carrillo

Kanpo begirada / Mirada externa:
Sophie Thirion

# EMILIO MANZANO

## VOLVERSE PEQUEÑO

65 min

Arte eszenikoak
Artes escénicas

Gazte eta helduentzat
Público joven y adulto

Andalucía





### LABURPENA

*Proyecto Pueblo* trilogiaren bigarren zatia da Volverse Pequeño lana. Kontakizun poetiko-bisual batetik abiatuta aurkezten da, autobiografiaren eta fikzioaren artean. Haurtzarorako bidaia bat da, maitasunetik eta samurtasunetik abiatuta, ametsen, promesen, identitatearen eta bizitzaren zentzu tragikomikoaren kontzientziaren inguruan.

### SINOPSIS

*Volverse Pequeño* pertenece a la segunda parte de la trilogía Proyecto Pueblo. Se presenta a partir de un relato poético-visual, entre lo autobiográfico y la ficción. Un viaje hacia la infancia desde el amor y la ternura; en torno a los sueños, las promesas, la identidad y la conciencia del sentido tragicómico de la vida.



### KONPAINIA

Emilio Manzano eszena-zuzendaria, dramaturgoa eta interpretea da. Lengoaia eszeniko berriak esploratzen ditu irudi plastikoaren, teknologiaren eta esanahi-aniztasunaren bidez. Zuzendaritza-laguntzailea izan da *Juana de Arco* (Madril, 2024) eta Proyecto Pueblo//Pubertad (Getxo, 2019) lanetan, zuzendaria *La culpa de todo la tiene War Disney-n* (Murtzia, 2018), eta Espainiako eta Europako konpainien kolaboratzaile.

### COMPAÑÍA

Emilio Manzano es director de escena, dramaturgo e intérprete. Explora nuevos lenguajes escénicos mediante la imagen plástica, la tecnología y la multiplicidad de significados. Ha sido ayudante de dirección en *Juana de Arco* (Madrid, 2024) y Proyecto Pueblo//Pubertad (Getxo, 2019), y ha dirigido *La culpa de todo la tiene War Disney* (Murcia, 2018), colaborando con compañías en España y Europa.

LARUNBATA 18
SÁBADO
19:00
HARROBIA




# BERRITZA ELKARTEA

## MAXKA`ROA

Zuzendaritza / Dirección: Eneko Gil

Antzezleak / Intérpretes: Txingili´k Taldea

Ekoizpena / Producción: Berritza Elkartea

60 min
Dantza-Antzerkia-kantua
Danza-Teatro-Canto
Adin guztietarako
Todos los públicos
Zuberoa-Frantzia





### LABURPENA

Maxka`roa lanak maskaradaren ezaugarri den zibilizazio-basakeria dikotomiarekin jolasten du, eta, dantzaren bitartez, 11 zuberotar dantzariren ardura, nahikari eta kezken berri ematen du. Zuberoako bizilagunek eta plazek mendeetan zehar ezagutu dituzten dantza, kantu eta antzerkien bidez zabaldutako alaitasunaren berrirakurketa- eta berrinterpretazio-ariketa bat da.

Lan hau Berritza Zuberoako dantza tradizionaleko elkarteko dantzarien eta Eneko Gil koreografoaren arteko topaketaren ondorio da. Ikuskizunak Zuberoako maskarada du inspirazio-iturri, eta tradizioa eta garaikidetasuna nahasten ditu. Maskarada da euskal folklorearen inauteri-erritu bereziena, eta haren ezaugarri nabarmenena da dantza, musika, kantuak eta antzerki-emanaldiak uztartzen dituela eta ikusleek ere modu aktiboan hartzen dutela parte. Horrela, bada, kalitatea eta Zuberoako maskaradaren tradizioarekiko lotura azpimarratu behar dira Berritza Elkartearen Maxka`roa lanean. Lan hori, gainera, dantzari gazte talde baten bultzadaz egin da, dantzaren arloan ibilbide aitortua duen koreografo baten zuzendaritzapean.

### SINOPSIS

Maxka`roa juega con la dicotomía civilización-barbarie, característica de la Maskarada, para reflejar a través de la danza las inquietudes, deseos y preocupaciones de los 11 bailarines xiberotarras. Se trata de un ejercicio de relectura y reinterpretación de la alegría trasmitida por las danzas, cantos y teatros de los que las gentes y las plazas xiberotarras han sido testigos durante siglos.

Esta pieza nace del encuentro entre los bailarines de Berritza, bailarines de danza tradicional souletina, y el coreógrafo Eneko Gil. El espectáculo se inspira en la Maskarada souletina y juega con la mezcla de la tradición y la contemporaneidad. La Maskarada es el rito carnavalesco por excelencia del folklore vasco caracterizado por la combinación de danza, música, cantos y representaciones teatrales, así como por la activa participación del público. Así pues Maxka`roa de Berritza Elkartea destaca por su calidad y su conexión con la tradición de la Maskarada de Zuberoa, y está impulsado por un joven grupo de bailarines bajo la dirección de un coreógrafo de reconocida trayectoria en el ámbito de la danza.

### KONPAINIA

Maule-Lextarreko Berritza kultura elkartearen helburua da Zuberoan euskal kultura sustatzea, eta, horretarako, talde amateurrei laguntzen die, tailer artistikoak eskaintzen dizkie, ikuskizunak koproduzitzen eta ekoizten ditu. Funtsean, kultura-baliabideen gune izatea du helburu. 2024an, Berritzak lan koreografiko berri bat aurkeztu zuen, Maxka`roa deritzana, eta lan horretan, beste artista batzuen artean, Txingili´k dantza-taldeko dantzariek eta Eneko Gil koreografoak hartzen dute parte.

### COMPAÑÍA

La asociación cultural Berritza de Mauleón-Licharre, trabaja en la promoción de la cultura vasca en Xiberoa (La Soule), apoyando a grupos amateurs, ofreciendo talleres artísticos, coproduciendo y produciendo espectáculos con el objetivo de ser un centro de recursos culturales. En 2024, Berritza presenta su nueva pieza coreográfica Maxka`roa en la que participan bailarines del grupo de danza Txingili´k y el coreógrafo Eneko Gil, entre otros artistas.



LARUNBATA 18
SÁBADO
21:00
LA FUNDICIÓN

# CIELO RASO

## NÉE

Zuzendaritza eta antzezlea
Dirección e interpretación:
Igor Calonge

Zuzendaritza laguntzailea
Ayudante dirección:
Gabriel F.

Koreografia laguntzailea
Ayudante de coreografía:
David Candela

Argien diseinua
Diseño de iluminación:
Sergio García

Jantziak / Vestuario:
Xabier Mujika

Eszenografia / Escenografía:
Igor Calonge

Ekoizpena eta banaketa
Producción y distribución:
Beatriz Churruca

55 min
Dantza
Danza
Gazte eta helduentzat
Público joven y adulto
Euskadi





### LABURPENA

*NÉE* lana hunkigarria da. Gizakia errotzen du, bakardadea laztantzen du, galera geruzatzen du, desilusioari lagun egiten dio, desengainua emantzipatzen du, absentzia indarberritzen du, maitasunaren alde borrokatzen du, hurbila dena birtualizatzen du, magiari eusten dio, demonioak uxatzen ditu, bizigabea humanizatzen du, iluntasunetik itzultzen da, irudimena astintzen du, beldurrak bereizten eta ordenatzen ditu, airea zeharkatzen du, ahalegina egiten du.

Dotoreziaz, zaratatik urrundutako bidaia bat eraikitzen du. Lehen pertsonan kontatua, hausnartua, eta eraldatzailea.

### SINOPSIS

*NÉE* es una obra que conmueve, enraíza lo humano, acaricia la soledad, estratifica la pérdida, acompaña la desilusión, emancipa el desencanto, vigoriza la ausencia, pelea por el amor, virtualiza lo cercano, sostiene la magia, espanta los demonios, humaniza lo inanimado, regresa del oscuro, asalta la imaginación, separa los miedos y los ordena, atraviesa el aire, se esfuerza.

Con elegancia, construye un viaje alejado del ruido. Narrado en primera persona, meditado, y transformador.

### KONPAINIA

*Cielo RasO* dantza konpainia Igor Calonge dantzari eta koreografoak sortu zuen 2010ean, Euskal Herrian, bere identitatea adierazpen kultural eta artistikoan ondo errotuta daukan herrialde honetan. Identitate hori, eta hura garaikidetasunerantz eraldatzea dira Cielo RasOren lanaren oinarriak; baina, horiez gain, tradizioaz, gorputzaren indarraz, erresistentziaz, borroka primitiboaz, sinbologiaz eta poetikaz baliatzen da, lengoaia fisiko berri eta arriskatua lortzen saiatzeko.

### COMPAÑÍA

*Cielo RasO* es una compañía de danza fundada por el coreógrafo y bailarín Igor Calonge en 2010 en el País Vasco, territorio con una fuerte identidad en su expresión cultural y artística. Esta identidad y su transformación hacia la contemporaneidad, es la base del trabajo de Cielo RasO, que se sirve de la tradición, la fuerza del cuerpo, la resistencia, la lucha primitiva, la simbología y la poética para transmitir siempre un lenguaje físico nuevo y arriesgado.






IGANDEA 19
DOMINGO
11:30
PLAZA ARRIAGA-
BILBOROCK

11:30
Ibilbidearen hasiera
Arriaga plazan

Inicio recorrido
Plaza Arriaga

13:00 13:00
Ibilbidearen bukaera
Bilborocken
(mahai-ingurua)

Fin recorrido Bilborock
(coloquio)

Garrantzitsua: mugikorra kargatuta eta aurikularrak. Oinetako erosoak, ura, eguzkitako krema edo euritakoa gomendatzen dira.

Importante: móvil cargado y auriculares.
Se recomienda el uso de calzado cómodo, agua, crema solar o paraguas.

Doan izen ematea aldez aurretik
Inscripcion previa gratuita

# PERPETÛA VASTARDA

## FREE TOUR-BILBAO

### MUESTRA DE PROCESO DE CREACIÓN “ARTISTAS EN RESIDENCIA”

105 min

Harreman antzerkia
Teatro relacional

Euskadi

Helduentzat
Público adulto

Kontzeptua, zuzendaritza eta dramaturgia / Concepto, dirección y dramaturgia: Nuria Hernando

Jardulea-performerra
Ejecutante-performer: Juana Lor

Aholkularitza artistikoa
Asesoría artística: Agustina Aragón

Web-aplikazioaren garapena
Desarrollo aplicación web: Hoilab

Ilustrazioak / Ilustraciones:
Clara León

Bertako artista plastikoa
Artista plástico local: Ainhoa Resano

Kartelaren diseinua / Diseño cartel:
Sara Martín

Entitate laguntzailea
Entidad colaboradora: Harrobia-Eskena

Egoitzak / Residencias:
ENTRE (Esquina Nua), Artistak Egonaldian (Bilbaoeszena, Teatrodix Phestibal

Banaketa / Distribución: Sit and See



LABURPENA

*Free Tour-Bilbao* harreman-antzerkiko proiektu bat da, hainbat hiriren turistifikazioaren arazoa salatzen duena. Horretarako, bozgorailu eta espazio kritiko bat eskaintzen die auzotarrei, haiek baitira arazo horren ondorioengatik kaltetuenak. Proiektua auzokideekin eta bertako artistekin elkarlanean sortu da, tokiko kulturgintza sustatzeko eta haren aldeko apustua egiteko.

SINOPSIS

*Free Tour-Bilbao* es un proyecto de teatro relacional que denuncia el problema de la turistificación en diferentes ciudades, ofreciendo un altavoz y un espacio crítico a lxs residentes de los barrios, que son lxs principales afectadxs por las consecuencias de dicho problema. El proyecto está creado en colaboración con los vecinos y vecinas, y artistas locales para promover y apostar por el tejido cultural local.



KONPAINIA

Perpetûa Vastarda Arte Bizien konpainia bat da, Nuria Hernandok (Bilbo) eta María Pizarrok (Barakaldo) 2024an eratua, sorkuntza-espazio hibridoak ekoizteko, ikertzeko eta sustatzeko helburua duena.

Gaur egun, konpainiak bi ekoizpen-lerro bereizi ditu: bata ikerketa koreografikora bideratua, eta bestea harreman-antzerkian zentratua.

COMPAÑÍA

Perpetûa Vastarda es una compañía de Artes Vivas creada por Nuria Hernando (Bilbao) y María Pizarro (Barakaldo) en el año 2024, con el objetivo de producir, investigar y promover espacios creativos híbridos.

Actualmente, la compañía tiene dos líneas de producción diferenciadas: una enfocada en la investigación coreográfica y otra centrada en el teatro relacional.



IGANDEA 19
DOMINGO
19:00
HARROBIA

# iXa

## NIK-EU 2.0

55 min
Dantza / Danza
Adin guztietarako (LGBTIAQ+)
Todos los públicos (PERSPECTIVA LGBTIAQ+)
Euskadi-Galizia
Gazte eta helduentzat
Público joven y adulto
Estreinaldia Euskadin
Estreno en Euskadi

Zuzendaritza eta jatorrizko ideia
Dirección e idea original:
Xián Martínez

Sorkuntza ekipoa / Equipo creativo:
Fernando Troya, Kateryna Humenyuk,
Mª José Casado

Antzezleak / Intérpretes:
Miguel Arévalo, Rosanna Freda,
Raúl Melcón, Xián Martínez

Jantziak / Vestuario:
Nicolás Barcala, Noelia Picadizo,
Celia de Rois

Argien diseinua / Diseño de iluminación:
Fermin Izko

Soinu espazioa / Espacio sonoro:
Aire, Fernando Careaga

Eszenogragia / Escenografía:
Mariona Signes, Juncal, Raúl Arraiza



### LABURPENA

NIK-EU 2.0 honela planteatzen da: oroitzapenen eta esperientzien multzo bat, bizitako errealitateen museo bat, ideien desordena batean antolatutako espazio bat, gure ni-en barru-barruko kontuak bilatzeko eta ikusle bakoitzarekin konektatzeko. Euskarazko NIK eta galizierazko EU (“ni”) kutsu autobiografikoa duen lan baten izenburuan elkartzen dira, bizitako emozioak eta errealitateak ikuspegi dibertigarri, zirraragarri eta intimo batetik islatzeko. Leku horretan, gizabanakoaren maskulinitatea deseraiki egiten da, gizarte-egitura heteropatriarkalak gizakiaren hazkundeari haurtzarotik heldutasunera nola eragiten dion hausnartzeko.

### SINOPSIS

NIK-EU 2.0 se plantea como un baúl de recuerdos y experiencias, como un museo de realidades vividas, un espacio ordenado en un desorden de ideas donde buscar y conectar lo más íntimo de nuestros yoes con las de cada espectadora. NIK, yo en la acción de posesión en euskera, y EU, yo en galllego, se conjugan en el título de una obra con tintes autobiográficos donde se plasmarán emociones y realidades vividas desde un punto de vista divertido, emocionante e íntimo. Un lugar donde la masculinidad del individuo se deconstruye para invitarnos a reflexionar sobre cómo la estructura social heteropatriarcal afecta al crecimiento del ser humano desde su infancia a su madurez.



### KONPAINIA

iXa Euskadiren eta Galiziaren nortasuna biltzen duen konpainia bat da, eta adituak ez diren ikusleentzako ikuskizunak sortzen ditu. 2025ean, 5 urte beteko ditu. Urte hauetan, asko hazi da. 2024an kontsolidatu da, konpainiaren ekoizpenez eta beste plataforma batzuetarako enkarguz osatutako 40 emanaldiko bira zabalarekin. Gaur egun, zenbait ikuskizunekin ari da bira egiten: aretoko bi pieza, eta kalean antzezteko Ollos cara adentro. 2025ean, iXa ardurатuko da Galiziako Zinema Sariaren galaz, Institut del Teatre-ko irakasle gonbidatuen artean egongo da, birarekin jarraituko du, eta ekoizpen propio bat garatuko du espazio ez-konbentzionaletarako.

### COMPAÑÍA

iXa es una compañía de identidad compartida entre Euskal Herria y Galicia que genera espectáculos pensados específicamente para público no especialista. En 2025 cumple cinco años con un fuerte crecimiento que se ha consolidado en 2024 con una extensa gira de 40 funciones entre las producciones de la compañía y los encargos para otras plataformas. Actualmente tiene dos piezas de sala en gira y una para calle. Durante 2025 IXa se hará cargo de la Gala de los Premios de cine de Galicia como invitado entre el profesorado el Institut del Teatre, seguirá con su gira y producirá su nuevo trabajo para espacios no convencionales.



IGANDEA 19
DOMINGO
19:00
LA FUNDICIÓN

Oinarrizko testua
Texto original:
Franca Rame, Darío Fo

Zuzendaritza / Dirección:
Ainara Gurrutxaga

Itzulpena / Traducción:
Xabi Martínez de Lezea

Antzezlea / Intérprete:
Laura Penagos

Eszenografia eta teknika/
Escenografía y técnica:
Elías Martínez de Lezea

Argazkiak / Fotografía:
Iñaki Aldatz

Ekoizpena / Producción:
Garaion Sorgingunea, Manvcodiata antzez-sorkuntza

# LAURA PENAGOS

## PUTAREN BAKARRIZKETA EROETXEAN

40 min
Antzerkia
Teatro
Gazte eta helduentzat
Público joven y adulto
Euskadi
Euskaraz





### LABURPENA

Emakume bat eroetxe bateko gela batean dago bakarrik, aulki batean eserita eta kamaraz inguratuta, ikusten ez dugun doktore batekin hizketan. Emakumea prostituta da, eta elkarrizketan bere istorioa azalduko du, eta horrela, hainbat gai azaleratuko dira, esate baterako, sexualitatea, bortizkeria, klasismoa eta feminismoa.

### SINOPSIS

